Proiektua: **LIFE IREKIBAI**. **Ibai irekiak:** ***Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza (LIFE 14 NAT/ES/00186)***

BILERA AKTA – Lan Taldearen 3. tailerra. **"Lehengoratze ekologikoa eta espezie exotikoak ezabatzea, eta muturluze piriniotarra"**

EGUNA: 2016ko maiatzaren 26a LEKUA: Arizkunenea (Elizondo) HASIERA: 17:00 AMAIERA: 20:00	**HELBURUA:** Elkarrekin berrikustea, kartografia eta ekintzen fitxak erabiliz, zehazki lehengoratze ekologikoari eta espezie exotikoak ezabatzeari, eta muturluze piriniotarrari dagozkionak, ibaiko oztopoak ezabatzeko jarduketak, eta zalantza oro argitzea Neurri horiek eztabaidatu eta aztertzea, eta bakoitzak bere ikuspuntuaren

Bertaratuak

Maite	Arzuaga	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	IES TOKI ONA BHI BERA	Bera
Mª Sol	Taberna Irazoqui	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	IES TOKI ONA BHI BERA	Bera
Martín	Urrutia	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	IES MENDAUR DBH Doneztebe	Doneztebe
Xabier	Petrirena	Foru Administrazioa	Mendizainak	Ingurumeneko Mendizaintza.	Oieregi
Itziar	Almárcegui Artieda	Elkarteak, Lanbide Elkargoak eta Unibertsitatea	Lanbide Elkarteak	BIOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA	Iruñea
Amaia	Angulo Rodeles	Elkarteak, Lanbide Elkargoak eta Unibertsitatea	Lanbide Elkarteak	SIBIC. Sociedad Ibérica de Ictiología	Iruñea
Ana	Urtasun Idiazabal	Elkarteak, Lanbide Elkargoak eta Unibertsitatea	Lanbide Elkarteak	Nafarroako Ingurumen zientzietako Elkartea.	Iruñea
Rafa	Miranda Ferreiro	Adituak	U.N.A.ko adituak	Nafarroako Unibertsitatea	Iruñea
Imanol	Luzuriaga Jauregi	Pertsona interesatuak	Ibaiertzeko auzokidea	Ibaiertzeko auzokidea	Donamaria
Alfredo	Zugarramurdi Santesteban	Pertsona interesatuak	Ibaiertzeko auzokidea	Ibaiertzeko auzokidea	Doneztebe
Sofia	Sapuppo	Pertsona interesatuak	Ibaiertzeko auzokidea	Ibaiertzeko auzokidea	Doneztebe
Carlos	Gallo	Arrantza	Arrantzalea	Izokin arrantzalea	Zangoza
Fernando	Echegaray	Arrantza	Arrantzale Elkartea	Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea	Bera
Prudencio	Quiroga	Arrantza	Arrantzale Elkartea	Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea	Bera
Jorge	Teniente Vallinas	Arrantza	Arrantzale Elkartea	AEMS Ríos con Vida	Sarriguren
Manuel	Germán	Arrantza	Arrantzale Elkartea	ANAPAM. Asoc. Nav. Pescadores a Mosca	Burlata
Martín	Apecechea Iribarren	Arrantza	Arrantzale Elkartea	Baztango Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkartea	Oronoz Mugairi
Iñigo	Ballarena Galarregui	Industria sektorea	Minihidraulikoak	Balga Energiak, S.L. (Minicentral de Navasturen	Iñigo
Miguel Angel	Belza Pérez	Industria sektorea	Errotak	Donamariako errota	Donamaria

Ignacio	Bergara Bergera	Foru Administrazioa	Departamentuak	Uraren Zerbitzua	Iruñea
Maria	Diez de Arizaleta Elduayen	Foru Administrazioa	Departamentuak	Uraren Zerbitzua	Iruñea
Gloria	Giralda Carrera	Foru Administrazioa	Departamentuak	Habitaten atala	Iruñea
Cesar	Pérez Martín	Foru Administrazioa	Departamentuak	Uraren Zerbitzua	Iruñea
Nekane	Vizcay Urrutia	Foru Administrazioa	Departamentuak	Uraren Zerbitzua	Iruñea
Pedro	Castillo Martínez	GAN - NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea
Luis	Sanz Azcarate	GAN - NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea
Ana	Varela Álvarez	GAN - NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea
Eva	Zaragüeta	GAN - NIK		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea

Aztergaiak

- 17:05 IREKIBAI proiektua, aldaketa geomorfologikoen bilakaera, lehengoratu diren tarteetako ibai-ibilguan.
- 17:15 Lehengoratze ekologikoa Bidasoa ibaiaren arroan.
- 17:35 Muturluze piriniotarraren populazioen eta habitataren kontserbazio-egoeraren bilakaera, eta bisoi amerikarra kontrolatzea.
- 17:50 Azalpenak eta zalantzak.
- 18:00 Talde lana. Eztabaida

Aurkezpenetako solasgaiak

- Ana Varelak **eskerrak eman** dizkie tailerrera bertaratu direnei, eta tailerreko parte-hartzaileen **aurkezpen txanda** egin da.
- Luis Sanzek **aurkezpenean Life Irekibai proiektua laburbildu du**: jarduketa eremua, aurrekariak, egutegia, etab., eta zer-nolako ondorioak izanen diren ingurumenaren aldetik proiektuaren lanekin onura jasoko duten funtsezko espezieetan. Ondoren, **D1 ekintzaren** xehetasunak azaldu dira – **Ibai-ibilguaren jarraipen geomorfologikoa** eraitsi beharreko presetan.
- Pedro Castillok **ibaiertzak lehengoratzeko** ekintza aurkeztu du, eta zer eremu proposatu diren proiektuan, eta eremu horien artean aukeratuko dira zer leku zehatzetan jardun behar den. Halaber, lehengoratzeak egiteko teknikak azaldu ditu, hala nola bioingeniaritza, espezie exotikoak ezabatzea…
- Gloria Giraldak **muturluze piriniotarra** aurkeztu du, hari lotutako arazoak, eta jarraipenak nola eginen diren. **Bisoi amerikarrari** buruz, azaldu du nola egin behar den haren kontrola, eta zer arazo sortzen dituen espezie exotiko hori ibaietan egoteak.
- Ana Varelak **Parte-hartze Plana** azaldu du, hots, helburuak, parte-hartze mailak, faseak eta parte-hartze Prozesuaren lehen fasean garatu beharreko lan guztiak.

Galderen txandan, galdera hauek egin dira:

Espezie exotikoak / aloktonoak.

Galdetu dute zergatik ez den lan egiten proiektuan koipua ezabatzeko (espezie exotikoa baita). Halaber, bertze espezie batzuei buruz galdetu dute, hala nola kastoreari, ubarroiari, koartzari eta loinari buruz, eta birpopulaketak egiteko erabiltzen den amuarrainari buruz, eta gaia behar bezainbeste ez dela landuko iritzi zaio. Eta, halaber, iritzia izan da pixka bat motza geldituko dela landare espezie exotikoak ezabatzeko aurreikusi den jarduketa (akaziak, platanondoak, indigaztainondoa, banbuak…).

Azalpenak:

- Proiektuaren helburu bateratuentzat ekarpenik handiena egiten duten espezie aloktono edo exotikoekin lan eginen da, proiektuarekin koherentzia dutenak, eta Europako Zuzentarauak betetze aldera. Gogoratu dute horri eskaintzen ahal zaion aurrekontua mugatua dela.

  Espeziez espezie hauxe erran zen:
  - Koipua (Myocastor coypus) izurri-espezieen artean sailkatua dago; beraz, ehiza-epealdi baliodunean ehizatzen ahalko da, 2015eko ekainaren 2ko 219 Foru Aginduak dakartzan mugen barnean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilariak emana, 2015-16 kanpainarako ehiza debekuen gaineko xedapen orokorra onesten duena.
  - Kastorea: 2013an azterlan bat egin zen Nafarroan. Zantzu bat aurkitu zen, eta huraxe aztertu ondoren, ondorioa izan zen ez zela kastorea Bidasoan egonkortasunez dagoelako ebidentziarik. Gainera, haren ohiturak direla eta, aise topatzen dira haren bizitzaren arrastoak, zura jaten baitu, ibaitik hurbil txirristak egiten baititu, etab.
  - Koartza eta ubarroiari buruz, argitu da ez direla espezie exotikoak, koartza hauskara Nafarroan egon ohi baita beti, eta ubarroiak berez kolonizatu ditu leku berriak. Ez bata, ez bertzea, ez du gizakiak sartu.
  - Loina espezie endemikoa da Kantauri aldeko ibaietan, aspalditik dago aipatua, eta badirudi zabaltzen ari dela. Adierazi da espeziea zabaltzeko arrazoietako bat izan daitekeela ibaiak iragazkortzea, eta argitu da, halaber, Irekibai Proiektuan, Gipuzkoan egiten den aldean, xede-espeziea dela, eta haiekin lan egin behar dutela haren kontserbazioa hobetzeko.
  - Amuarrainak birpopulatzeari dagokionez, Eskualde Salmonikola Mistoan soilik birpopulatzen da; ez Goikoan, (hau da, Bidasoa aldean). Goiko Eskualde Salmonikolan, xedea da populazio basati hutsak berez mantentzea; hortaz, ez da birpopulaketarik egiten. Nolanahi ere, Eskualde Salmonikola Mistoan birpopulaketak amuarrain arrunt triploidearekin (antzua izatea eragiten duena) egiten dira, autoktonoekin ez gurutzatzeko. Horrela, ez da introgresio genetikorik gertatzen, hau da, populazio batzuengandik besteengana gene ezberdinak sartzeak (amuarrainean, ibai batetik bertzera; baita ibai bereko erreken artean ere) populazioen ezaugarriak alda ditzake. Gainera, une jakin batean birpopulaketarik ez egitea erabakitzen bada, amuarrain birpopulatuak desager daitezke,

www.irekibai.eu

ez baitute ugaltzeko gaitasunik. Horrela ez da ibaian mantenduko birpopulaketa artifizialetatik abiatutako populaziorik.

- Landare espezie exotikoak ezabatzeko aurreikusia dagoen jarduketari dagokionez (akaziak, platanondoak…), argitu da aurkezpenean azaldu diren datuak direla Europako Batzordearentzat bete beharreko gutxienezko helburuak, eta aurreikuspenen arabera, ezabaketa gehiago eginen dira. Adierazi da, halaber, batzuetan ez dela ona espezie horien zati batzuen ezabaketa, zeren horrek birkolonizaziorako laguntza ematen baitie, baina argitu da birpopulaketak ere espezie autoktonoekin egiten direla hori eragozteko.

Bide berdea Endarlatsa aldean konpontzea.

Inork adierazi du Endarlatsa aldean erori den ezponda (Bide Berdea) oztopoa dela izokinak presako eskalaraino iristeko, eta galdetu dute ia nork konpondu behar duen.

Azalpenak:

- Adierazi da bidearen jabeak konpondu behar duela; hau da, iduri duenez, inguru horretako Udalen Kontsortzioak (Baztan- Malerreka Botziriak), eta gehitu da proposamen hori jada Bide Berdeko teknikariak (Cedernak kontratatua) egin zuela Jarraipen Batzordean, eta jada jaso egin dela; beraz, erantzun bat emanen da ekainean eginen den Itzulera Jardunaldian.

Oronoz- Mugairiko zentrala

Galdetu dute zergatik ez den jardungo presa horren gainean, eta badirudi hamar urte baino gehiago daramatzala lan egin gabe, eta transformadorerik eta turbinarik ere ez duela.

Azalpenak:

- Adierazi da galdetuko dela zer egoeratan dagoen, erantzun bat emateko.

Eskalak eraikitzea.

Minizentralen jabe bat beste jabe baten bozemaile ere izan da (beste horrek ez baitu tailerrera joaterik izan), eta dokumentazio bat eraman du (dokumentazioaren erreferentzia 2. Tailerraren aktan dago) Guadiana ibaian arrainendako egin diren eskalei buruz (tokiko egunkariaren arabera, eskala berritzaileak dira), eta eskala horiek ikustera joateko eskatu du, eta faunaren migraziorako, presak eraisteaz bestelako konponbideak aztertzeko, zeren, tailerretan proposatu baita emakida duten zentralak erosi eta eraistea. Gogoratu du energia hidroelektrikoa energia garbia dela.

Erran da, halaber, Nazetako eskalak ez duela deia ongi diseinatua, eta horregatik ez dela iragazkorra.

Azalpenak:

- Adierazi da dokumentazio hori aztertuko dela, baina nolanahi ere presak eraistea konponbiderik onena dela erabiltzen ez diren oztopoentzat; eta emakida duten presentzat, proiektuan aurreikusia dago arrainendako pasabideen eraginkortasuna ebaluatzea.
- Nazetako presaren deiari eta funtzionaltasunari dagokionez, adierazi da hori emariaren mendean dagoela, eta bertze saio batzuetan erran izan den bezala, lanean ari dela emari ekologikoa ziurtatzeko, eta hori betetzen dela begirada hutsez frogatzeko.

2. Tailerraren akta onestea.

- Iñigo Ballarenak eskaturik, 2. Tailerreko aktan jaso da proiektuaren zuzendaritzak publikoki eskertu zuela zentral hidroelektrikoen emakidadunen elkarlana geldialdiak egiteko, eta horrela, banaketa ubideetan sartzen diren izokin gazteak ez turbinatzeko. Eta Iñigo Ballarenak, halaber, Rubén Balsateguik eskaturik azaldu du (hau da Nazetako Zentralaren jabeak eskaturik, ez baitu gaurko saiora etortzerik izan), Rubenek e-mail bidez helarazitako albistea arrainendako eskalen gainean, eta egunkarien fotokopiak aurkeztu ditu. Beraz, bi gaiak (eskerrak ematea eta albisteetarako estekak) maiatzaren 19ko tailerraren aktan jasoko dira. Bi iruzkin horiek sartuta, 2. Tailerraren akta onartutzat jo da.

Taldeetan eginiko lanaren ondotik, gai hauek jaso dira aztertzeko, bai eta proposamen hauek ere:

1. Taldea. Kideak: Jorge Teniente, Iñigo Ballarena, Prudencio Quiroga, Sofia Sapuppo eta Mª Sol Taberna.

Azterketa:

- Aurkeztutako ekintzen balorazio ona.

Proposamenak:

- Alkaiagako platanondoak botatzea (Beran) eta bertako espezieak landatzea.
- Ezpondak egonkortzeko lanak egitea Doneztebeko zubiaren ondotik (Honatx koordenatuak: 608.570, 4.776.663. Bidasoaren eskuinaldeko bazterrean da, zubitik beheiti, zubi horren eta araztegiaren artean), higadurarik ez izateko.
- Berako arrantza eta ehiza elkarteak gailuren bat paratzeko eskatu du (halako babes sistema bat jaitsierako migrazioan), izokin gazteak banaketa ubideetan ez sartzeko, eta aldi berean, Zentralaren errendimenduari ez eragiteko (ubideen emariari ez eragiteko).

2. Taldea. Kideak: Alfredo Zugarramurdi, Martín Apecechea, Carlos Gallo, Manuel Germán, eta Maite Arzuaga.

Azterketa:

- Ez da eragozpenik proposatu diren jarduketen gainean.

Proposamenak:

- Azterlanak edo proiektuak egitea, arrainak berreskuratzen saiatzeko, kate trofikoan behetik hasita; adibidez, barboak eta txipak berreskuratzea; gero, espezie handiagoak berreskuratu ahal izateko, iduri baitu barboak eta txipak falta direla.
- Arrainen arraba lekuak markatzea (amuarraina eta izokina), ibaian sartzen diren arrantzaleek errespeta ditzaten. Eztabaidagaia da nola bete ibaiko arraba lekuak ez zapaltzeko helburua, zeren iduri baitu egungo araudia neurrigabea dela, betetzeko zaila, eta egiazki, ez dago ziurtatua arraba lekuak ez "zapaltzea". Kide batzuk ibai ohea zapaltzea debekatzearen aldekoak dira; beste ahots batzuek, ordea, badirudi eskatu dutela espezieetako arraba lekuak seinaleztaturik egon daitezela.
- Ibaiertzak lehengoratzeko ekintza proposamenetan beste puntu bat sartzea; hots, Doneztebeko ezpondak egonkortzea. (Honatx koordenatuak: 608.570, 4.776.663. Bidasoa ibaiaren eskuinaldeko bazterrean da, zubitik beheiti, zubi horren eta araztegiaren artean).
- Bideak bilatu eta adostea, egun funtzionamenduan ari diren zentralen emakidak lortzeko (berreskuratzeko); adibidez, emakida hidroelektriko horiek energia eolikoarekin trukatzea. Gehitu da San Tiburtzioko presaren emakida 2021ean bukatuko dela, 2025ean bukatu ordez.

Azalpenak:

- Arraba lekuak markatzeari dagokionez, zaila omen da ezartzeko, espezieak aunitz baitira, eta errunaldi garaiak ezberdinak. Nolanahi ere, gaia parte-hartzearen 2. Fasean sartzea proposatu da, parte-hartze prozesuaren gaietako bat bezala; arrantza kudeatzeko gaian, hain zuzen ere.
- San Tiburtzioko presaren iraungipenari dagokionez, adierazi da Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak emaniko data 2030/08/25 dela.

3. Taldea. Kideak: Xabier Petrirena, Amaia Angulo, Ana Urtasun, Imanol Luzuriaga eta Miguel Angel Belza.

Azterketa:

- Jarraipen geomorfologikoaren balorazio ona, Iturenen arreta berezia jarrita, horrek izan omen baititzake arazorik handienak.

Proposamenak:

- Lehengoratze lanetan eginen diren praktiken gaineko eskuliburu bat prestatzea, Konfederazioak irizpide

berberak izan ditzan lan egiterakoan.

- Espezieak ezabatzeko lanen jarraipena egitea, berriz ere eremua kolonizatu ez dezaten.

Azalpenak:

- Proiektu honetan, Bidasoa ibaiko fauna katalogo bat egotea aurreikusia dago, baina izan daiteke Praktika Egokien eskuliburu bat egin ahal izatea POCTEFA proiektu batean, inguru honetan ere kokatua eta duela gutxi esleitua. Adierazi da, halaber, Konfederazioa beharbada kontzientziatuagoa dagoela, eta haren jarduketak begirunetsuagoak izaten ari direla, baina zenbaitetan, premiazko jarduketak badira, ez dago plangintzarako astirik.

3. Taldea. Kideak: Rafael Miranda, Martín Urrutia Itziar Almárcegui eta Fernando Echegaray.

Azterketa:

- Aurreikusitako jarduketen balorazio ona.
- Oso ontzat jo da Bidasoa 5 izeneko tartean deflektoreak paratzea.
- Halaber, oso ontzat jo da Bidasoa ibaiko platanondoak ezabatzea, Asiako liztorraren nitxoa baita.

Proposamenak:

- Jarraipen geomorfologikoaren ekintza Txarutako errekara ere zabaltzea, burtainaren egoera ekologikoa sustatzeko edo interpretatzeko.
- Donezteben, bideratua dagoen tartean (Bidasoa 5), ezpondak landareztatzea proposatu da, ibaian itzal handiagoa izan dadin, eta horrela, horrenbeste alga ugaltzeko arrazoietako bat ezabatzeko. Horren haritik, beste proposamen bat sortu da:
    - Donezteben, ibaian dauden zeharkako hesiak ezabatzea.
- Birpopulaketetan bertako espezie gehiago erabiltzea; ez bakarrik sahatsa, eta haltz zerrendak lortzen saiatzea.
- Gehiago zehaztea Sunbillako tarteko zer lekutan eginen diren lanak eta zer lan.
- Endarlatsa aldean platanondoak kentzea.

Azalpenak

- Proiektuaren zuzendaritzak argitu du ez zegoela aurreikusia Txarutako errekaren jarraipen geomorfologikoa egitea, munta txikikoa baita, eta era berean, ez interpretatzea nola okupatzen dituen burtainak habitat berriak.
- Ezkurra ibaiaren tarteak hirigunean ez du aukerarik ematen ezpondak lehengoratzeko, hormen bidez kanalizatua baitago. Tarte horretako “ibai ohea zuraren bidez dibertsifikatzeak” ibaiertzeko habitat berriak sor ditzake (legar-hobi txikiak sahastiekin).
- Ibaian zeharka dauden hesiak ezabatzeari buruz, adierazi da helburua dela urak ibaiaren ibilgu osoa hartzea, eta deflektoreak paratzearekin batera, ziurrenera kasuren batean hesi horiek ezabatu beharko dira.
- Espezieei buruz, adierazi da ezpondei eusteko egiturak “sahatsarekin” egiten direla; ez dago bestelako aukerarik. Egiturekin batera, honako zuhaixka landareak landatuko dira, besteak beste: Corylus avellana (hurritza), Crataegus monogyna (elorri zuria) eta Viburnum lantana (marmaratila). Eta zuhaitz espezie hauek landatuko dira: Alnus glutinosa (haltza) eta Fraxinus excelsior (lizarra).
- Ez dago aurreikusia platanondoak Endarlatsa aldean ezabatzea.

Eta saioa bukatutzat jo da, 2016ko maiatzaren 26ko 20:00etan.

I. ERANSKINA

1. Txarteletan eta horma-irudian bildutako azterketak eta proposamenak, talde lanaren ondotik.
2. 4 neurrien balorazioa koloretan (onarpen mailaren galdetegia).
3. Proposamenen laburpena

www.irekibai.eu
Gipuzkoako Foru Aldundia · Diputación Foral de Gipuzkoa · ura · hazi · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra · Nafarroako Ingurumen Kudeaketa, S.A. · Gestión Ambiental de Navarra, S.A.

1. Txarteletan eta horma-irudian bildutako azterketak eta proposamenak, talde lanaren ondotik

	AZTERKETA	PROPOSAMENAK
JARRAIPEN GEOMORFOLOGIKOA	• Jarraipen geomorfologikoa, ona	• Txarutako errekako jarraipen geomorfologikoa egitea, burtainaren interpretazio ekologikoa egiteko. • Jarraipen geomorfologikoa: Iturenen arreta handiagoa jartzea.
IBAIERTZAK LEHENGORATZEA	• Balorazio ona, • Oso ona ibai-ibilguaren dibertsifikazioa, deflektoreak 850 metroko tarte batean sortuta. • Platanondoak ezabatzea ona da Asiako liztorrari aurre egiteko.	• Alkaiagako platanondo handi-handiak bota eta ibaiertzeko espezieak landatzeko proposamena. • Ekintzaren bat egitea Doneztebeko Baztango zubiaren eskuinaldean, araztegiaren aurretik, ibaiak ibaiertzeko lurra eraman ez dezan. • Doneztebeko Baztango zubitik behera, euste-lan bat egotea. Ibaia lur osoa eramaten ari baita. • 5. Tartea (Doneztebe): ezponda landareztatzeko proposamena, ibaian itzal handiagoa izan dadin. • Ibaiko zeharkako hesiak ezabatzea Donezteben. • Haltz zerrenda kontuan hartzea. Haltzak landatzea aurreikustea. • Bertako espezie gehiago erabiltzea ibaiertzak landareztatzeko. Ez bakarrik sahatsa. • Hainbat tartetan egin beharrekoa zehatz-mehatz azaltzea: espezieak, zer lan. Doneztebe – Sunbilla 2. tartea. • Lehengoratze lanak Konfederazioaren eguneroko lanean txertatzea. Praktika egokien kodeak. Hori kontuan hartzea errepideen kontserbazioan. • Espezie inbaditzaileen jarraipena eta kontrola, jarduketaren ondotik (akazia)
MUTURLUZEAREN JARRAIPENA	• Balorazio ona.	
BISOI AMERIKARRAREN KONTROLA	• Balorazio ona.	

EMARIAK		• Bideak bilatu eta adostea, funtzionamenduan ari diren zentralen emakidak lortzeko. • San Tiburtzioko presaren iraungipena 2021ean edo 2025ean.
ARRANTZA		• Azterlanak edo proiektuak egitea, arrainak berreskuratzen saiatzeko kate trofikoan behetik hasita; adibidez, barboak eta txipak berreskuratzea; gero, espezie handiagoak berreskuratu ahal izateko. • Arrainen arraba lekuak markatzea petoarekin ibaian sartzen diren arrantzaleek errespeta ditzaten (amuarraina), edozein errekatan.
BESTE BATZUK		• Gailuren bat paratzeko aukera aztertzen saiatzea, arrainak minizentraletako banaketa ubideetan sar ez daitezen, eta aldi berean, ur galerarik ez izateko zentralera doan emarian.

2. 4 neurrien balorazioa koloretan (onarpen mailaren galdetegia)

Lan Taldeak zer pentsatzen duen 3. Tailerrean eztabaidatutako proiektuko jarduketez: Hurbilketa kualitatibo bat koloretan…

Oharra: Alfredo Zugarramurdik hitzez hitz igorritako testua, 3. Parte-hartze Tailerraren aktaren berrikuspenari erantzunez.

"hirugarren bileraren akta; aktaren testuaren kontra nago erabat, espezie arrotz edo exotikotzat jotzea platanondoa , gaztainondoa, eta gainera, erratea loina espezie autoktonoa dela adierazitako eremuan, oso gaizki iruditzen zait, zer erranen dugu…."

3. Proposamenen laburpena

Gaia	Zk	IREKIBAIko jarduketak	Proposatzailea	
			Tailerrean eztabaidagai	Bertze bide batzuk eztabaidarik gabe [1]*
Lehengoratzea	1.	Alkaiagako platanondoak botatzea (Beran) eta bertako espezieak landatzea.	1. taldea	
	2.	Donezteben, bideratua dagoen tartean (Bidasoa 5), ezpondak landareztatzea proposatu da, ibaian itzal handiagoa izan dadin, eta horrela, horrenbeste alga ugaltzeko arrazoietako bat ezabatzeko.	4. Taldea	
	3.	Donezteben, ibaian dauden zeharkako hesiak ezabatzea.	4. Taldea	
	4.	Gehiago zehaztea Sunbillako tarteko zer lekutan eginen diren lanak eta zer lan	4.Taldea	

Gaia	Zk	IREKIBAI proiektuaz kanpoko jarduketak	Proposatzailea	
			Tailerrean eztabaidagai	Bertze bide batzuk eztabaidarik gabe [1]*
Obrak	5.	Endarlatsa aldean bide berdea konpontzea	Sociedad Caza y Arrantza de Bera	
Uraren kalitatea eta ingurumen emariak	6.	Bideak bilatu eta adostea, egun funtzionamenduan ari diren zentralen emakidak lortzeko (berreskuratzeko); adibidez, emakida hidroelektriko horiek energia eolikoarekin trukatzea. Adierazi da San Tiburtzioko presaren iraungipena 2021ean edo 2025ean bukatuko dela.	2. Taldea	
	7.	Oronoz Mugairiko Zentralaren egoera jakitea eta, bere kasuan, jardutea	M.A.	
Lehengoratzea	8.	Ezpondak egonkortzeko lanak egitea Doneztebeko zubiaren ondotik (Honatx koordenatuak: 608.570, 4.776.663. Bidasoaren eskuinaldeko bazterrean da, zubitik beheiti, zubi horren eta araztegiaren artean), higadurarik ez izateko.	1.Taldea	
	9.	Ibaiertzak lehengoratzeko ekintza proposamenetan beste puntu bat sartzea; hots, Doneztebeko ezpondak egonkortzea. (Honatx koordenatuak: 608.570, 4.776.663. Bidasoaren eskuinaldeko bazterrean da, zubitik beheiti, zubi horren eta araztegiaren artean).	2. Taldea	
	10.	Birpopulaketetan bertako espezie gehiago erabiltzea; ez bakarrik sahatsa, eta haltz zerrendak lortzen saiatzea.	4. Taldea	
	11.	Endarlatsa aldeko platanondoak ezabatzea.	A.Z	
Arrantza	12.	Azterlanak edo proiektuak egitea, beste espezie batzuk berreskuratzen saiatzeko. Adibidez, barboak, txipak…	2. Taldea	
	13.	Arraba lekuak seinaleztatzea; amuarrain eta izokinarenak, batez ere.	2. Taldea	
Txostenak/ Azterlanak	14.	Lehengoratze lanetan eginen diren praktiken gaineko eskuliburu bat prestatzea, Konfederazioak irizpide berberak izan ditzan lan egiterakoan.	3. Taldea	
	15.	Espezieak ezabatzeko lanen jarraipena egitea, berriz ere eremua kolonizatu ez dezaten.	3. Taldea	
	16.	Jarraipen geomorfologikoaren ekintza Txarutako errekara ere zabaltzea, burtainaren egoera ekologikoa sustatzeko edo interpretatzeko.	4. Taldea	
	17.	Jarraipen geomorfologikoa: Iturenen arreta handiagoa jartzea.	3. Taldea	
Beste batzuk	18.	Berako arrantza eta ehiza elkarteak gailuren bat paratzeko eskatu du (halako babes sistema bat jaitsierako migrazioan), izokin gazteak banaketa ubideetan ez sartzeko, eta aldi berean, Zentralaren errendimenduari ez eragiteko.	1. Taldea Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea	

www.irekibai.eu

www.irekibai.eu